



GARBIKETA ZERBITZUA – Bikaintasun maila

Prozedura ireki bidez kontratatzeko ingurumen irizpideak

1. Kontratuaren xedea eta espezifikazioak

1.1. Kontratuaren xedea

Xedeak esleipendunak egin beharreko lan guztiak jasoko ditu, hau da, bai eraikinen garbiketa bai gaika bildutako hondakinen kudeaketa:

1. Koadroa

Kontratu honen xedea administrazioaren eraikinetan garbiketa zerbitzua emateko gutxieneko baldintzak definitzea da.

Zerbitzu hori ingurumena eta lan osasuna gehiago errespetatzen duten metodo, praktika eta produktuak erabiliz emango da, besteak beste, hondakinak era egokian kudeatuz eraikinetan indarrean dauden gaikako bilketa sistemak mantenduz [eta eskuak lehortzeko dispentsagailuak ingurumena gehiago errespetatzen duten beste batzuegatik ordezkatzeari (ez bada bereizita egiten)].

1.2. Hautaketa irizpideak: kaudimen tekniko eta profesionala

Giza osasunean eta ingurumenean eragina izan dezaketenez, mota honetako kontratuetan, kaudimen tekniko edo gaitasun profesionaleko irizpide gisa har daiteke administrazio-pleguan ingurumen-kudeaketako neurriak aplikatzearen bermea sartzea kontratuaren exekuzio-aldirako:

2. Koadroa

- Ingurumen-kudeaketako jardunbide egokiak sistematikoki aplikatzearen bermea sartzea kontratuaren exekuzioan, honako egiaztagiri hauetakoren bat aurkeztuta:
 - Garbiketa-zerbitzuak ingurumen-kudeaketako sistema bat izatearen ziurtagiria (EMAS, ISO 14001, Ekoscan edo baliokidea).
 - Garbiketa-zerbitzuentzako Europako Etiketa Ekologikoa edo I. motako beste ekoetiketa bat.
 - Garbiketa-zerbitzuan lan-osasuna babesteko eta ingurumena zaintzeko jardunbide egokiak sistematikoki aplikatzen direla frogatzen duten kontratuaren xedearekin lotutako arlo garrantzitsuak identifikatzeko dokumentazioa, ingurumen-hobekuntzako plana, laneko prozedurak/jarraibideak eta kontrol erregistroak.
- Garbiketa-metodoetan eta zerbitzuarekin lotutako ingurumen-alderdian prestakuntza duen koordinatzaile bat izatea. Prestakuntza hori egiaztatzeko koordinatzailearen curriculumak aurkeztu beharko da.

1.3. Esleipen-irizpideetan bete beharreko zehaztapen teknikoak eta zehaztapen baloragarriak

1.3.1. Garbiketa produktuentzako irizpideak

3. Koadroa

- Honako hauek erabiltzea debekatuta dago:
 - Aire-freskagarriak.
 - Pixatokiak edo pastillak edo lurrintzeko substantziak.
 - Sprayak.
 - Desinfektatzaileak edo lixiba bezalako desinfektatzaileak dituzten produktuak garbitasun orokorrerako, komunetan eta zehaztutako azaleratan salbu.
- Garbiketa produktuen ontzi guztiak behar bezala etiketatuta egongo dira kontratuaren gauzatze klausuletan definitu bezala.
- Ontziek dosifikagailu zehatzak izan behar dituzte.
- Lau garbiketa-produktu ohikoenek –erabilera anitzeko garbitzailea, zorua garbitzekoa, beirak garbitzekoa eta zeramikazko gainazalak garbitzekoa– I. motako ekoetiketaren baten baldintzak beteko dituzte, adibidez, Europako Etiketa Ekologikoa, Beltxarga Zuria ekoetiketa edo produktuok izan beharreko

osagai kimikoak zehazten dituen beste ekoetiketa baliokideren bat.

- Gainontzeko produktuak – desinfektatzaileak salbu– ezingo dira egon jarraian zehaztutako arrisku ohar batekin sailkatuta eta etiketatuta 1272/2008 (EE) Erregelamenduaren eta osteko zuzenketen arabera: H300, H301, H304, H310, H311, H317, H330, H331, H334, H340, H341, H350, H350i, H351, H360F, H360D, H360FD, H360Fd, H360Df, H361f, H361d, H361fd, H362, H370, H371, H372, H373, H400, H410, H411, H412, H413, H420 eta EUH070.
- Lizitatzailerak zerbitzua burutzeko zein produktu erabiliko dituen erakusten duen zerrenda aurkeztu beharko du, 2. eranskinean¹ esaten denaren arabera, eta horrekin batera, segurtasun-fitxa ere aurkeztu beharko du, 255/2003 Errege Dekretuaz eta gerora produktuei buruz izandako zuzenketez bat.
- Hauek baloratuko dira:
 - Lau garbiketa produktu ohikoenak edukiera handiko ontzietan garraiatzea, eta, ostean, lanean erabiliko diren ontziak betetzea edo kontzentratu eta diluituak prestatzea, 1:80 edo gehiagoko diluzio ratioarekin.
 - Ontziek polibinil kloruroa (PVC) bezalako plastiko halogenaturik ez izatea.

1.3.2. Komuneko paperarentzako eta esku lehorgailentzako irizpideak

4. Koadroa

- Honelakoak izan behar dute produktuek:
 - % 100 birziklatuak.
 - Batere klororik ez dutenak/ Totally Chlorine Free (TCF).
 - Produktuaren formulazioak konposatu kimikoak izateari dagokionez, I motako ekoetiketaren baten (Aingeru Urdina, Beltxarga Zuria, Europar Batasuneko Etiketa Ekologikoa edo antzekoak) irizpideak betetzea.
- Lagin bat aurkeztu beharko da produktua ukitzean atsegina dela eta erresistentziako ezaugarri tekniko egokiak dituela bermatzeko.

1.3.3. Esku xaboia hautatzeko irizpideak

5. Koadroa

- Eskainiko den esku xaboiak I. motako ekoetiketaren baten baldintzak bete beharko ditu, adibidez Europako Etiketa Ekologikoa, Beltxarga Zuria ekoetiketa edo esku xaboiak izan beharreko osagai kimikoak zehazten dituen beste

¹ Kapitulu honetako "Hornitzaileentzako Checklist-a" ikusi, hemen: <http://www.ihobe.eus/criterios-ambientales>.

ekoetiketa baliokideren bat.

- Baloratuko da ontziek plastiko halogenaturik ez izatea.

1.3.4. Zabor-poltsak hautatzeko irizpideak

6. Koadroa

- Zabor-poltsek honako ezaugarri hauek bete behar dituzte:
 - Polietileno edo polipropileno egindakoak izan behar dira (ezin dira plastiko halogenatuz egindako poltsak erabili).
 - Birziklatutako plastikoz eginda egon behar dira gutxienez % 80 batean.
 - I. motako ekoetiketaren batean definitutako irizpideak betetzea, produktuak izan beharreko osagai kimikoei dagokienez.

1.3.5. Garbiketa erremintezako eta makinenezako irizpideak

7. Koadroa

- Garbiketarako trapuak eta mopak/zoru garbigailuak mikrofibrazkoak izango dira hondakin gutxiago sortzeko, eta ur eta beste produktu kimiko batzuk gutxiago kontsumitzeko.
- Garbiketarako ekipoei, xurgagailuei edo leungailuei kasu, ez dute 70 dB(A) baino zarata handiagorik egingo.

Aintzat hartuko da ur, energia eta produktu kimikoen kontsumoa murrizteko aukera ematen duten makinak proposatzea, betiere ohiko makinek edo prozedurek eskainitako zerbitzua hobetzen dutela frogatzen bada. Honakoak baloratuko dira:

- Zarata maila txikiagoak.
- Xurgagailuak lehorrean erabiltzekoak eta poltsarik gabekoak izatea.
- Leungailuei banaketa sistema aldakorra izatea leuntzeko produktuaren erabilera optimizatzeke edo produktua behar ez izatea.
- Ekipoei ur (l/m^2), energia (Kwh/m^2) eta produktu kimiko gutxi kontsumitzea.

Balorazioa egiteko, lizitatuak zerbitzuan erabiliko dituen makinaren zerrenda bat aurkeztu beharko du (3. Eranskinean), makina horien potentzia, zarata mailak eta ur eta energiaren kontsumoa adieraziz, dagozkion egiaztagiriarekin batera.

1.3.6. Zerbitzua hobetzeko irizpide baloragarriak

8. Koadroa

- Aintzat hartuko dira lizitatzailleek aurkezturiko beste hobekuntzak:
 - Haien erantzukizunak bilketa selektiboan: esaterako, banaketaren arrazionalizazioa eta edukiontzi kopurua; bilketa selektiboa sustatzeko banaketa; hobekuntza bilketa-maiztasunean (maiztasun txikiagoa ere izan daiteke), eta abar.
 - Erregai edo/eta energia kontsumo txikiagoa ahalbidetuko duten eskuak lehertzeko ekipamenduak, komuneko paperarentzakoak eta eskuak garbitzeko xaboiarenak [kostu gehigarria onartu edo ez erabaki beharko da, ohiko pleguaren arabera].

2. Kontratua gauzatzea

9. Koadroa

Prestakuntza

- Langileek bete behar dituzten zereginen gaineko prestakuntza jaso behar dute, besteak beste, nola egin lanok euren osasunarentzat eta ingurumenarentzat modu arduratsuan (produktuen dosifikazio eta diluzio egokia, uraren zentzuzko erabilera, argiak itzaltzea...). Esleipendunak esleipena lortzen denetik hasita 2 asteko epean prestakuntza-plan bat aurkeztu beharko du, langile guztiek jaso beharreko prestakuntza jaso dezaten kontratua behar bezala burutzeko, XX hilabete igaro baino lehen (kontratuaren iraupenaren arabera zehaztuko da hori).

Hondakinen kudeaketa

- Barrutian sortutako hondakinen egungo gaikako bilketa mantenduko du esleipendunak eta hondakinak dagokion edukiontzietan botako ditu.
- Zerbitzuan sortutako hondakinei dagokienez (papera, trapuak, kartoiak, produktuen ontziak...), esleipendunak kontratua betetzen duen bitartean sortutako hondakinak behar bezala kudeatzen dituela bermatu beharko du. Sortutako hondakinak ohiko hiri hondakinen parekoak badira, esleipendunak berezi eta ohiko edukiontzietan botako ditu. Aldiz, hondakin arriskutsuak baldin badira, kudeatzaile baimendu baten esku utzi beharko ditu (funtsean, arriskutsutzat jotako garbiketa produktuen ontziak).
- Kontratuaren hasieran, hondakin arriskutsuak kudeatuko dituzten kudeatzaile baimenduak aurkeztuko ditu esleipendunak.

Ontziak etiketatzea

- Ontzi guztiak, bai produktu kontzentratuenak bai diluituenak, behar bezala etiketatuta egongo dira honako ezaugarri hauekin:
 - Produktuaren izen komertziala.
 - Produktuaren arriskugarritasun piktogramak.
 - Erabilera-jarraibideak, batik bat dosifikazioarekin lotutakoak.

Beste produktuak erabiltzea

- Eskaintzan aurkeztu ez den beste produktu bat erabili behar baldin bada, beharrezko dokumentazio guztia aurkeztu beharko da alde aurretik onartua izan dadin.

Lan arauak

- Ingurumenari, lan osasunari eta produktuen segurtasunari buruzko informazioa bilduko duten lan arauak landu beharko ditu esleipendunak kontratuaren lehen hilabetean.
- Lan arau horiek eraikinean eskuragarri izan beharko dira.

Biltegitratzea

- Esleipendunak behar bezala eta legeriari jarraituz biltegitratuko ditu garbiketarako produktuak.

Txostena

- Sei hileko lehen txostena aurkeztuko du esleipendunak (ondoren urte bakoitzaren amaieran) honakoak adieraziz:
 - Produktuen eta bakoitzetik erabilitako kopuruen balantzea (txostenari dagokion denbora tartean), kontsumoa monitorizatzeko eta dosifikazioa kontrolatzeko, azken hori ahalik eta gehien murriztuz. Hori bai, beti eutsi behar zaie finkatutako garbitasun estandarrei.
 - Kendutako hondakinen eta edukiontzien erabilera mailaren kalkulua, zatika eta hilabeteka zehaztuta. Helburua da hondakinen ekoizpena eta gaikako bilketa monitorizatzea sistema hobetuz joateko.
 - Trebakuntza plana garatzea.

3. Esleipen-irizpideak

Esleipen-irizpideetan xehetasunez zehaztu behar dira elementu baloragarri bakoitzari emango zaion haztapena eta hura ebaluatzeko formula edo parametroak.

Esate baterako, balorazio-irizpideen artean batzuek balorazio automatikoa dute, formula matematikoak erabilia², eta beste batzuek balorazio automatikoa bai, baina formula matematikorik ez.

10. Koadroa

Formula matematiko bidezko balorazio automatikorako irizpideak

- Lau garbiketa produktu ohikoenen zer ehuneko hornitzen den edukiera handiko ontzietan, ostean lanean erabiliko diren ontziak betetzeko edo kontzentratuak prestatzeko [gehienez 3]
- Polibinil kloruroa (PVC) bezalako plastiko halogenaturik gabeko ontzietan hornitutako garbiketa-produktuen eta esku xaboiaren ehunekoa [gehienez 2]
- I. motako ekoetiketaren baten eskakizunak betetzen dituzten zabor-poltsen ehunekoa [gehienez 2]

Balio-iritzi bidezko balorazio irizpideak

- Zerbitzua eskaintzeko erabiltzea proposatzen den makinetako hobekuntzak [gehienez 5]
- Hondakinen gaikako bilketako sistemaren hobekuntzak [gehienez 4]
- Eskuak lehortzeko ekipoak, komuneko paper-banagailuak eta xaboi-banagailuak tresna efizienteagoekin ordezkatzeko proposamena [gehienez 4]

² Formula matematikoak era askotakoak izan daitezke (hiruko erregela arrunta, alderantziz proportzionala izatea, desbideraketa estandarra, e.a.) eta horietako bakoitzak ondorio ezberdina eragingo du eskaintzak bereizteko orduan. Hori dela eta, kasu bakoitzean merkatuko errealitatera egokien egokitzen den formula erabili beharko da, eskaintza bakoitzaren artean dauden aldeak ez daitezen proportzioz kanpo distortsionatu.

4. Eskaintza teknikoaren edukia: eskaintza-aurkezpena

Aurkeztutako eskaintzak eta dokumentuak ebaluatzeko lana erraztearren, pleguan bertan zehaztuko da dokumentazioa nola aurkeztu. Informazio hori lizitazio-deialdian zehaztuko da, balizko lizitatuzaileek behar beste denborarekin jakin dezaten.

11. Koadroa

Eskaintzaileak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du jarraian zehaztutako moduan:

- a) Zereginen eta emandako zerbitzuaren **memoria deskribatzailea**. Bertan zehaztuko dira hileko prezioak eta honela banakatuko dira:
- Zerbitzuan erabilitako ekipoen prezioa.
 - Zerbitzua eskaintzeko eskuratutako produktuen prezioa.
 - Eskulanari dagokion zatia (orduak prezioa barne).
- b) **Produktuentzat eta makinentzat eskakizun espezifikoen fitxa**³ behar bezala beteta, sinatuta eta zigilatuta. Horrekin batera aurkeztuko dira derrigorrezko espezifikazioak betetzen direla bermatzen duten **egiaztagiriak**; eskaintzaileak hitzemandako espezifikazio baloragarrien egiaztagiriak, eta eskaintzaileak balora daitezen proposatutako beste ingurumen espezifikazioen egiaztagiriak.

Baldintza-agirian ezarritako estandarrak eta bestelako egiaztagiri batzuk baliokideak direla frogatzea eskaintzaileari dagokio; horretarako, baliokidetza hori erakusten duten azterlan teknikoak aurkeztu beharko ditu.

³ Kapitulu honen "Hornitzaileentzako egiaztapen-zerrenda" atalaren lehenengo txostena ikusi (<https://www.ihobe.eus/ingurumen-irizpideak>)